

**EUSKARA.** Erakundeak datorren urterako lan ildo eta mobilizazioak aurreratu zituen atzo, prentsaurrekoan

# EHEren ustez, Gernikako Epaitegian «egoera kezkarria» da oraindik

Epaile eta langile gehienak euskaraz ez dakitenez, hizkuntza eskubideak zapaltzen direla dio

Humberto Unzueta | BILBO

Hizkuntza eskubideei dagokien behin behin, Gernika-Lumoko Epaitegiaren egoera «guztiz kezkarria» izaten jarraitzen duela adierazi zuen Euskal Herrian Euskaraz-ek (EHE), atzo Gernikan bertan. Epaitegiko hiru epaileek ez eze, langile askok ere euskaraz ez dakitela salatu zuen.

Ekaina bitartean EHEk egin dituen mobilizazioak eta lan ildoak aurkezteko agertu ziren hedabideen aurrean erakundeak kide Koldo Rodriguez eta Pernan Basterretxea, Gernikako Epaitegiaren beraren atarian.

Epaitegiaren barrutian bizi diren 60 milatik gora herritarren hizkuntza eskubideak «urratuta» daudela nabarmendu ondoren, Rodriguezek eta Basterretxeak azken bi urteetan egindako lanaren eta ekimenen balorazioa egin zuten.

Era askotariko mobilizazioez gain, EHEko kideek udaletako hautetsiekin zein herri mugimenduetako ordezkarekin jorratutako sostengu eta elkarlanean bidea nabarmendu zuten. Ildo horretan, interlokuzio dinamika «zabaltzeko» asmoa agertu zuten ondorengo hilabeteetarako eta, besteak beste, Arartekoarengana eta Justizia administrazioaren arduradunarengana jotzeko asmoa berretsi zuten.

Herri «kontsulta» bat egin asmo dutela ere iragarri zuten EHEko kideek atzoko agerraldian. Adierazi zutenenez, «oraindik noiz eta nola ez badakigu ere, epai barrutiko herritarrei gai honetaz zer pentsatzen duten jakiteko erreferenduma egingo dugu».

Maiatzaren 25eko udal hauteskundera begira, EHE k bilera txanda egingo du alderdi politikoekin, «euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzearen aldeko aldarrikapena aintzat har dezaten beren hauteskunde programetan».

Aldarrikapena gizarteratze aldera, mobilizazio dinamika berria abiatuko dutela jakinarazi zuten, eta hilean behin, hilaren azken larunbatean, epaitegiaren aurrean, euskaldunon hizkuntza eskubideen aldeko elkarretaratzea egingo dutela ere esan zuten. Aurrena, heldu den abenduaren 28an egingo dute, eguerdian.



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Koldo Rodriguez eta Pernan Basterretxea, Gernikako Epaitegiaren atarian, atzoko prentsa agerraldian.

EHEko kideek Gernikako Epaitegiko hiru epaile instruktoreen «jarraipen zehatza» egingo dutela adierazi zuten, «herritarrek hizkuntza eskubideak nork zapaltzen dizkion jakiteko eskubidea dutelako». Haien hitzetan, «orain arte Jaurlaritzak, Justizia administrazioa eta epaitegi horren gaineko

ardura duten erakundeak salatu ditugu, baina heldu da garaia epailei beraiei jarraipena egiteko».

Mobilizazio ildo horren barruan, datozen hileetarako zenbait ekimen zehatz aurreratu zituen Koldo Rodriguezek. Abenduaren 13an EHEko bost kide epaitegiko teiltura kan-

paldi bat egin asmoz igo zireneko urteurrena beteko da eta ordurako ekimen bat agindu du erakundeak, epaitegiaren aurrean. Martxoaren 6an borroka eguna deituko dute eta grebak eta manifestazioak bultzatuko dituzte.

Hizkuntza eskubideen eguna Lekeition martxoaren 29an

## DATUA

### Atxilotzeko agindua

Duela urtebete eskas protesta ekintza batean parte hartu ondoren, Gernikako Epaitegiko epaile batek deklaratzera deitu zituen bost lagun. Bostak uko egin zioten deia-ri, eta bilatze eta atxilotzeko agindua betez, Ertzaintzak horietako lau eraman zituen epaile aurrera. Bosgarrena, Koldo Rodriguez, prentsa agerraldian egon zen atzo. Bertaratu ziren ertzainek identifikatu egin zuten, prentsa-ekin hitz egiten ari zela, baina hala ere ez zuten atxilotzeko agindua bete.

egingo dela adierazi zuten, eta egun osoko jai egitaraua prestatzen ari direla jakinarazi.

Egoerak aurrera egiten ez duela iritzita, EHEk desobediencia ekimena «bultzatu eta indartzeko» borondatea agertu zuen atzo. Egund, bi mila bat insumiso direla aipatu zuen Basterretxeak, «eta kopuru horrek gora egingo du» erantsi zuen.

### Intsumisioa

Rodriguezek esan zuenez, insumisioen kopurua handitzeaz gain, «epailearen deiari uko eginen diotenen kopurua ere gora egitea» da EHEren helburua. Egund bost lagun dira epailearen aurrera bere borondatez joan ez, eta Ertzaintzak eraman behar izan dituztenak, tartean Rodriguez bera.

Orain urtebete eskas Rodriguez eta beste lau elkarteak Gernikako Epaitegiaren teiltura igo ziren protesta ekimen bat egiteko. Ertzaintzak epaitegira eraman zituen lau kide haiek. Bosgarrena, Rodriguez bera da. Ertzaintzak hura bilatu eta atxilotzeko agindua du.



## 2002ko ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

Abenduaren 10an eta 13an, jarraian aipatzen diren leku eta ordutan, ondoko zerrendan agertzen den kategoriaren ariketak izango dira Donostiako Ospitalean (Begiristain Pasealekua, 115. 20014-Donostia-San Sebastián), Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak deitutako aukeraketa-prozesuaren barruan:

| DATA     | ORDUA | KATEGORIA                          | ARETOA                                                   |
|----------|-------|------------------------------------|----------------------------------------------------------|
| 02-12-10 | 12.00 | BFE TORAXEKO KIRURGIA (1. ariketa) | Donostia Ospitaleko Amara Eraikinaren areto nagusia      |
| 02-12-13 | 12.00 | BFE TORAXEKO KIRURGIA (2. ariketa) | Donostia Ospitaleko Gipuzkoa Eraikinaren Gipuzkoa aretoa |

**Aretoa noiz irekiko den:** Probaren hasiera ordua baino 15 minutu lehenago.

**Aretoa noiz itxiko den:** Aurreikusitako orduan; proba hasi ondoren ezin izango da inor sartu aretora.

Informazio gehiago behar izanez gero, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Giza Baliabideetako Zuzendaritzara jo dezakezu, telefono hauetara deituz:

• 945 006 004 • 945 006 176 • 945 006 150

www.osakidetza-svs.org



## 2002ko ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA DESZENTRALIZATUA. GURUTZETAKO OSPITALEA.

Abenduaren 9, 10 eta 13an, ondoko zerrendan agertzen diren probak izango dira, behean zehazitutako data, ordu eta lekuetan, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak deitutako Ospitaleak deitutako aukeraketa-prozesuaren barruan:

**GURUTZETAKO OSPITALEA** (Gurutzetako plaza z/g - Gurutzeta, Barakaldo)

Lehen Proba egin behar duten kategoriak:

| DATA     | ORDUA | KATEGORIA                                                                              | ARETOA                                                                 |
|----------|-------|----------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------|
| 02-12-10 | 10.00 | GAIXOTASUN INFEKZIOSO PEDIATRIKOEN ARLOAN DESTINO DUEEN PEDIATRIKO MEDIKU ESPEZIALISTA | Gurutzetako Ospitaleko Administrazio Pabiloiko 3. Solairuko Biler-Gela |
| 02-12-13 | 10.00 | NEONATOLOGIA PEDIATRIKOEN ARLOAN DESTINO DUEEN PEDIATRIKO MEDIKU ESPEZIALISTA          | Gurutzetako Ospitaleko Administrazio Pabiloiko 3. Solairuko Biler-Gela |

Bigarren Proba egin behar duten kategoriak:

| DATA    | ORDUA | KATEGORIA                                                                             | ARETOA                                                                 |
|---------|-------|---------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------|
| 02-12-9 | 10.00 | MEDIKUNTZA INTENSIBO PEDIATRIKOEN ARLOAN DESTINO DUEEN PEDIATRIKO MEDIKU ESPEZIALISTA | Gurutzetako Ospitaleko Administrazio Pabiloiko 3. Solairuko Biler-Gela |

**Gela noiz irekiko den:** Probaren hasiera ordua baino 15 minutu lehenago.

**Gelak noiz itxiko den:** Aurreikusitako orduan; proba hasi ondoren ezin izango da inor sartu. Informazio gehiago behar izanez gero, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Giza Baliabideetako Zuzendaritzako Hautaketa-Zerbitzura jo dezakezu, telefono hauetara deituz:

• 945 006 004 • 945 006 176 • 945 006 150

Edo, Gurutzetako Ospitaleko Giza Baliabideetako Zuzendaritzako telefono hauetara:

• 946 006 204 • 946 006 205 • 946 006 208

www.osakidetza-svs.org

www.hospitalcruces.org